

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### Lantarongo Udalaren Kultura-Elkarteentzako 2025eko dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS(Identif.): 823132.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/823132>).

#### Lehenengoa. Onuradunak

Irabazi-asmorik gabe eraturako elkarteak, egoitza Lantaronen dutenak eta Euskadiko Elkar-teei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera legez eraturak eta erregistraturak daudenak, eta haien programak edo jarduerak udal-eremuan egiten badira, elkarteak kokatuta dagoen udal-erriko edo udal-erriko biztanleriari zuzenduta, 2025ean garatu beharreko egutegi espezifiko batekin. Ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean dauden eskatzaileak.

#### Bigarrena. Xedea

Diruz laguntzea legeztatutako elkarteek 2025erako udal-eremuan sustatutako jarduera sozio-kulturalak eragindako gastuak, baldin eta udal-eremurako interesgarritzat jo badaitezke. Ez dira diruz lagunduko herriko jaien programaren barruan diruz laguntzen diren jarduera espezifikoak, ezta erabilera pertsonaleko materialek, otorduek, lunchek eta abarrek, dietek eta joan-etorriek eragindako gastuak ere. Ez elkar-tearen barne-funtzionamendutik eta kudeaketatik eratorritako gastu materialak, ez elkar-tearen jardueren zabalkundeari dagokion publizitatekoak, ezta udalak eskainitakoekiko paraleloak diren proiektuak ere, udalaren esku-hartzearen osagarri ez badira.

#### Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak Lantarongo Udalaren webgunean (Araba), [www.aytolantaron.com](http://www.aytolantaron.com), eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan (BDNS) daude argitaratuta.

#### Laugarrena. Zenbatekoa

Udalbatzak, eskabidea aurkeztu ondoren egingo den lehen osoko bilkuran, dirulaguntza bi-dezkoa den ala ez zehaztuko du, nahitaez eta gauzatu aurretik, aurkeztutako dokumentazioa ikusita (programa, jardueren aurrekontua eta eskatutako gainerako dokumentazioa). Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ateratzen den defizita hartuko da kontuan, eta dirulaguntza gisa ezin izango da inoiz ordaindu elkarteak bere jarduera guztietarako duen urteko defizita baino handiagoa, programen balorazio-irizpideak kontuan hartuta, animazio soziokulturalako zerbitzuaren txostenaren arabera.

#### Bosgarrena. Aurkezteko epea

2025eko abenduaren 31ra arte, eta salbuespen gisa, geroago aurkeztea onartuko da, beste erakunde baten dokumentazioa erantsi behar denean (2025eko abenduaren 31tik aurrera jasotakoa).

Komunioi, 2025eko martxoaren 21a

Alkatea

JOSÉ LUÍS SALVIDEA MARTÍNEZ